



Donostia, 2015eko urriaren 23a

## IDAZKARI NAGUSIARI:

### KONTROL MOZIOA, ATE IREKIKO ZERBITZUA IREKITZEA DELA ETA

Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Ate Irekiko Zerbitzua dela eta, Udalbatzan azter dadin. Mozioa Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

### JUSTIFIKAZIOA

Udaleko Gizarte Ongizatearen Atalak gaua kalean pasatzen duten pertsonak premiaz artatzeko protokolo bat egin du. Protokolo horrek, besteak beste, zer bitarteko erabil daitezkeen ezartzen du neguko muturreko meteorologiaren ondorioz gizarte larrialdiren bat detektatuz gero.

Gizarte larrialdietarako zerbitzua erabiltzeko gestioa GIZARTE LARRIALDIETARAKO UDAL ZERBITZUAREN bidez egiten da, eguneko 24 orduetan, Udaltzaingoak edo Sos Deiak zerbitzuak aktibatu ondoren.

Negurako, hiru harrera bitarteko daude, eta egoera berezietarako protokolo bat:

- 1) Gizarte Abegi Etxea (40 plaza)
- 2) Neguko Aterpea (40 plaza)
- 3) Ate Irekiko Zerbitzua (plaza mugagabeak).

Azken zerbitzu hori etxerik gabeko pertsonari eskaintzen zaie muturreko baldintza meteorologikoak daudenean, hotzaldietan, tenperatura zero azpitik gradu bat edo gradu gehiago denean.

Neguko baliabide berezi hori udaleko zenbait departamenturen artean aktibatzen da. Horretarako, jarduteko protokolo bat dago: AEMETen eguerdiko ordu bietako partearekin, mezu bat igortzen zaie agente guztiei; era horretara, zerbitzuan betebeharren bat duten arduradunek denek aldi berean dakite gau horretan zerbitzua aktibatuko den edo ez.



2012an, esate baterako, zerbitzua 11 egunez ireki zuten, eta guztira 108 pertsona artatu zituzten. Iaz, ordea, zerbitzua egun bakar batean ireki zuten (abenduaren 31n) eta guztira 26 pertsona artatu zituzten.

Badakigu inoiz okerren bat izan dela eta ez dela ireki irekitzeko premia zegoenean.

Hori dela eta, hauxe da gure

### KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari alda dezala ate irekiko zerbitzua, zabalik egon dadin eguerdiko ordu bietako eguraldi iragarpenaren arabera gau horretan bost gradu edo gutxiago egin behar baditu.

Izpta.: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.